

# KANALAK

## **Gure produktu eta zerbitzua bezeroengana helarazteko egingo duguna:**

Gure proiektua merkatu- segmentuetara iristeko kanal egokia erabiltzea ezin bestekoa da, izan ere, hauen bidez balio- proposamen egokia eraman eta arrakasta lortzeko aukera izango dugu. Kanalen artean hiru bereiz daiteke: komunikazio- kanala, banaketa- kanala eta salmenta kanala, eta hauek guztiak bezeroarekiko harreman puntuak dira.

Gure kasuan, komunikazio- kanala eta salmenta- kanala osatzeko interneteko webgunea eta denda fisikoa erabiliko dugu, esaterako, gure produktu edo zerbitzua online saltzen dugunean, ez gara bitartekariez baliatzen, salmenta-kanal zuzena erabiliko dugu eta.

